

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 2016-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den irailaren 27an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; kontu orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 18 erakundeen kontuek osatzen dute.

HKEEK aldeko iritzia plazaratu du Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten Entitateen Kontuei dagokienez, eta ez du batere salbuespenik adierazi.

Txostenak fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. **Zorpetzeak behera egin du 32 milioi euroan, enpresa sektore publikoarena barne.** Epaitegiak ondorioztatu du sarreraren aurrekontua egikaritzeak eta gastua kontrolatzeak, arrunta zein kapitalekoa, ekitaldi arruntaren emaitza 2015ekoa baino askoz hobea izatea bideratu duela, aurrekontuaren emaitza metatua 6,6 milioi euroan gehitu delarik.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Aldundiak zein Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten entitateek zuzentasunez bete dute ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko ez-betetzeak azalerratu diren **langileen eta kontratazioaren** atalean; izan ere, langileen atalean NUIZetik salbuetsitakotzat jo dira BFAk eta Euskalduna Jauregia, SAK ordaindutako zenbait prima eta kalteordain, Langileen Estatutuan aurreikusitako kausak egiaztatu gabe; eta Beaz, SAN aldi baterako kontratu bat mugagabe bihurtu da, inongo hautaketa prozesurik bideratu gabe; kontratazioaren atalean, berriz, GUFEn eta Enpresa Sektore Publikoko zazpi entitatetan 3,6 milioi euroren erosketak egin dira prozedura irekia baliatu gabe edo publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe; halaber, Azpiegiturak, SAK 2 kontratu prozedura ireki bidez esleitu ditu, arautze harmonizatuari meneratutako kontratuen prozedurazko eta

publikotasunezko arauak bete gabe; Euskalduna Jauregia, SAn eta Garbiker, SAn, berriz, bi kontratu luzatu dira horien epea gaindituta.